

BERTSOLARITZA LANTZEN

XENPELAR BERTSO ESKOLA

ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

MADALENETAKO BERTSO SAIOA

Iazko Santio egunean, madalenetan ohiko den bezala, bertso saioa izan genuen, Foru Plazan. Joxe Agirre eta Aitor Mendiluze aritu ziren kantari eta esan behar da saio polita eskaini zigutela.

Joxe Agirre beteranoa, azpeitiarra da; aski ezaguna bertsozaleon artean. 1929an Oranda-Beheko baserrian jaioa; gaur egun 76 urte ditu, baina hala ere, bertsoan ederki egiten du; zuzena

eta azkarra bezain zorrotza da. Gazteekin, oraindik ere, ongi moldatzen da.

Aitor Mendiluze ere, oso gaztetatik ezaguna da bertsolaritza munduan. 1995ean Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen; 2001eko Txapelketa Nagusian 3. gelditu zen Belodromoan, eta 2003ko Gipuzkoakoan, Irunen jokaturako finalean ere, 3. postua lortu zuen. Beraz, ez da edozein andoaindar bertsolari trebea.



2004ko Madalenak. Aitor Mendiluze eta Joxe Agirre, bertsotan

Goiko argazkian agertzen den Foru Plazako irudia betirako galdu da jadanik. Bertan egiten ari diren obrak amaitzean beste itxura bat hartuko baitu. Merezi du arretaz begiratzea.



Joxe Agirre, kantari. *Izarraizpeko kattagorria* oraidik sasoi onean dago



Jon Ansa, kantari. Atzean, Josu Oiartzabal; serio eta pentsakor.



Josu Oiartzabal, kantari, txapela irabazi baino lehen

VI. TXANTXANGORRI SARIA

Herri mailako Bertsolari Txapelketa hau 6. aldiz jokatu zen iazko uztailaren 10ean, Agustinetako Auzo Elkartearen egoitza berrian. Sei bertsolarik kantatu zuten, Josu Oiartzabal garaile gertatu zela-rik, Jon Ansa, bigarren sailkatua, buruz burukoan gainditu ondoren, saio polit baten ostean.

Kanporaketa, Arkaitza tabernan jokatu zen ekainaren 26an.

Lan hau argitaratzen den garai beretsuan jokatu da aurtengoa, hau da VII. Saria.



Bertsolariak prest Kepa Isasi gai-jartzailearen aginduetara

XVI. BERTSOPAPER LEHIAKETA. "ZAPIRAIN ANAIK" SARIA

Urtero bezala, Bertsopaper Lehiaketa hau helduentzat antolatzen da. Iazko Santo Tomas egunean banatu ziren sariak, emaitza hauekin:

- Lehen Saria: *ANIMALI UGARI PIZTI BAKARREAN*. Esteban Martiarena Labandibar. Oiartzun.
- Bigarren Saria: *ONGI ETORRI, ONGI JOAN*. Mikel Arrillaga Bereziartua. Eibar.
- Akzesit (aipamen berezia): *40. IKASTURTEA OSPATZEKO "Q" SARIA*. Julian Albistur Aranburu. Errenteria-Orereta.

VI. BERTSOPAPER LEHIAKETA. "IBON ZABALA" SARIA

Aurreko urteetan bezala, Bertsopaper Lehiaketa hau 16 urte arteko gazteentzat antolatzen da, Oarsoaldea mailan (Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia). Emaitzak, hauek izan ziren:

- Lehen Saria: *KOPETA ILUN*. Karmele Mitxelena Etxebeste. Oiartzun.
- Bigarren Saria: *MAITASUN GUTUNA*. Aitzol Pikabea Ozio. Errenteria-Orereta.
- Hirugarren Saria: *JUSTIZIARIK GABE*. Ioritz Huete Zuloaga. Errenteria-Orereta.

GURPILEN AZPIAN. Ander Minguez Balda. Errenteria-Orereta.

SANTO TOMAS EGUNEKO BERTSO SAIOA

2004ko abenduaren 21ean, bertso-paper sariak banatu ondoren, bat-bateko ohiko saioan Amets Arzallus, Jon Martin, Aitor Sarriegi, Iñaki Apalategi, Aitor Albistur, eta Arkaitz Oiartzabal, aritu ziren *Errenteria Hiria Kulturgunean* (Niessen). Gai-jartzaile lanetan, Kepa Isasi sanjuandarra.

SANTA AGEDA BEZPERAKO KOPLAK

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera, Xenpelar Bertso Eskolako kideok, Ereintzako gazteekin bat eginik, herrian zehar ohiko erronda egin genuen, Xabier Vesgaren zuzendaritzapean. Ekitaldia xumea bezain polita izan zela esan genezake.

BERTSO IKASTAROA

Apirilaren 22an, Orereta Ikastolan, *Bertso Ikastaroa* deituriko hitzaldia antolatu genuen, Andoni Egaña, zarauztar ospetsuaren eskutik. *Ahozkotasuna: Historia eta gaur egungo egoera* gaiari buruz aritu zen, maisutasun handiz gainera; aditua baita gai horretan. Hitzaldi interesgarria



Andoni Egaña, egungo txapelduna, ikastaroa ematen

eskaini zigun bertsolari txapeldunak; egia esan, ez genuen gutxiago espero 12 urte txapeldun darमतзан bertsolariarengandik. Harrigarria da Andonik bertsolaritza egin dion ekarpena; beste maila batean jarri du. Ahalmen izugarria du bertsoarako; komunikatzaile bikaina da eta idazle aparta.

Jakina den bezala, Andonik 3 aldiz irabazi du Bertsolari Txapelketa Nagusia. Aurtengo abenduan bere laugarrena lortzeko aukera izango du Barakaldoko Erakustazokan (B.E.C.).

BERTSO EMANALDIAK

Udaberri honetan, herriko ikastola eta ikaste-txeetan bertso emanaldiak antolatu ditugu. DBH-ko 3. eta 4. ikasleentzat bereziki prestaturiko ekitaldiak izan dira. *Ni ez naiz zu*; bat-bateko eta bertso jarriekin osatutako saioak egin dira. Esan dezakegu, ikasleen artean, harrera ona izan dutela ekitaldi hauek eta bertsolaritza irakaskuntzan txertatzeko modu egokia izan daitekeela.

GR-5 BERTSO BIDEA

Iazko GR-4, (Lasarte, Orio, Hernani eta Oiartzun) aurten GR-5 bihurtu da, Xenpelar Bertso Eskolako bertsolariak ere, iazko lau talde horiekin batera, lehian aritu baitira Errenteria-Oreretaren izenean.

Bost herri hauetako bertsolariak parte hartu dute ligaxka moduan eratutako lehiaketa honetan; herrian bi saio egin dira: Arkaitza eta Sindikato tabernetan. Hasiera batean, bertsolariak kantatzeko aukera ematea garrantzitsuagoa zen, lehia irabaztea baino.

Hernanik, lau saio egin ondoren, hiru irabazi ditu; hain zuzen, gure aurka galduta. Errenteria-Oreretak, beste hiru irabazi ditu, Orioren aurka galdu ondoren beste guztiak gainditu baititu.

Hernanik eta Errenteria-Oreretak Lasarten jokatu berria dute finala (maiatzaren 15ean). Hernani gailendu bada ere, ez pentsa erraz irabazi duenik; oso parekatua izan baita azken saioa. Xenpelar Bertso Eskolako bertsolariak oso ongi aritu dira lehiaketan eta 2. postua meritu handikoa da. Erakutsi dute euren maila; gai dira beste bertsolariarekin lotsarik gabe kantatzeko. Urte askotako lan iraunkor baten fruitua izan da. Uzta jasotzen hasiak gara.